

HAU @ HAU

HAU PITTU HAU-Euskaldunen kompartaren aldizkaria

3.366. 1.997.eko Inalla

ARRAKASTA

Aste Nagusia 97 azken urteotako hoberena izan zen.



Berriro gaude HAU PITTU HAU-ren berriak zureganatzeko, derrigortua denez ale hau Aste Nagusia 97 taz hitz egiten du, hitzez eta argarkiz due-

la hilabete bat gertatu zena gogoraraziko dizuegu. Espero dezagun zuen gustokoa izatea.

Ale hau taberna batetan edo lagun baten

bitartez lortu baduzu jakin ezazu etxean dohainik jaso dezakezula. Deitu 4162730 eta zure helbidea eta izena eman.

ELEFANTEA
ASKATU.....2

ASTE
NAGUSIKO
XELEBREE-
NAK.....3

EL CO-
RREO ETA
ASTE
NAGUSI.....4

**HPH-K EZ DU
BARKATUKO:
HOR DAGO
MARRAZKILO
HILTZAILEAK**


ELEFANTEA
askatu!



10 URTE BETE ETA ONDO OSPATU ERE BAI

10 Urteurrenaren ospakizuna itzela izan zen. Irudi bat milaka hitz baino hobeago omen da. Beraz ale honetako argazkiak

egun horretakoak dira. Bazkaria, antzerkia, bertsotrikikalejira eta abar, ez dadila inor lotza.



Elkarrizketa «Tronpadunari»

Urteak generamatzan bera Bilbotik ikusten, Ihauterietan eta Aste Nagusian batez ere. Bere aurpegiak bizitza latz eta egora bortitz bat isladatzen zuen eta azkenean aurten injustiziaren aurkako herri ekimen bat sortu egin da. «Elefantea askatu» izenpean. Bilboko hainbat euskaldunaek Hor Dago-n preso dagoen elefantearen askatasuna aldarrikatu dute behin eta berriro. HAU...HAU-kook gatazka honen protagonistarekin elkarrizketa bat lortu dugu. Hortxe duzue:

HAU...HAU: Hasteko, nola heldu zara egoera honetara.

ELEFANTEA: Beno, ni jatorriz afrikarra naiz. Han bizi nintzen nire anaiarekin bizitza aurrera atera nahian. Egun baten gizon txuri bat hurbildi zitzaigun lanpostu bat eskainiz. Lanpostua European lan egiteko zen eta birritan pentsatu gabe Hizkuntz bitxi batetan idatzita zegoen kontratu bat sinatu genuen. Handik bi hilabetetara eta Gibraltarreko itsasadarra pateran zeharkatu ostean Euskal Herrira heldu ginen.

HAU...HAU: Zer gertatu zen orduan?

ELEFANTEA: Gure herrian sinatutakoa Euskaraz idatzita zegoen. Hura bizitza osorako lan-kontratu bat zen jana eta bizileku truke, esklabutza kontratua alegia. Hitzez adostatuko hartatik ezer ez zen egia.

HAU...HAU: Zer eskaini zizuen ba?

ELEFANTEA: Bi urtetako kontratu bat zirkoan artista moduan lan egiteko.

HAU...HAU: Zein izan da zure lana urte hauetan?

ELEFANTEA: Ba gizon horren kideek Euskal Herrian zehar jaiak antolatzen dituzte, eta horretara joan beharra daukat lan egitera. Hori ez da txarrena, talmgarria dena zera da, bizi baldintzak, transladoak, eta Bilboko Aste Nagusia jasan beharra.

HAU...HAU: Zehaztu gehiago, mesedez.

ELEFANTEA: Lanik ez dagoenean biltegi zikin batetan bizi naiz. Egunak bakardade hutsean igarotzen dira, ez daukat kalera irteterik. Lan egin behar dudanean bidaiak furgona baten atzekaldean egiten ditut. Hau oso txikia da orduak eta orduak ematen ditut etzanda eta mugitu ezinik.

HAU...HAU: Eta Bilboko Aste Nagusian?

ELEFANTEA: Aste Nagusian 9 egun txosna baten barruan ematen ditut, atsedetik gabe, lo egin gabe, komunera joan gabe, jo ta ke lanean.

HAU...HAU: Zer gertatu zen zure anaiarekin?

ELEFANTEA: Beraiek auto istripu batean hil egin zela diote baina nik badakit ez dela egia. Nire anaia ni baino beroagoa zen eta behin baino gehiagotan hes egiten saiatu zen. Ez dut pentsatu ere nahi zer egin ahal izan diote.

HAU...HAU: Zer deritzozu zure alde sortu den «ELEFANTEA ASKATU» plataformari?

ELEFANTEA: Nik eskertu nahi nuke «HAU PITTU HAU»-koei eta «HOR DAGO»-ko hainbat kideei emandako laguntza eta sostengua eta mesedez bide horretatik jarraitzeko eskatzen diet.

HAU...HAU: «HOR DAGO»-ko kideak ere zure askatasunaren alde daude?

ELEFANTEA: Bai, baina zati bat baino ez. Hauek izkutuan eraman behar dute bestela auskalo zer gerta daikieken. Bestaldetik «HOR DAGO» barruan badago jente benetan gaistoa eta bortitza. Adibidea jaietako bazkariarena.

HAU...HAU: Marrazkilo lapikoarena?

ELEFANTEA: Bai, «HAU PITTU HAU» nire askatasunaren alde eduki zuen jarreragatik zigortzeko dozenaka marrazkilo akatu zituzten mendeku giza.

Elkarrizketa hau bukatu bezain laster gure laguna furgona zikin batetan sartzen ikusi genuen, berriro bere ziegara. Bide ona izan laguna.



Aste Nagusiko xelebrenak:

JAIETAN MAIXU

- **HAU PITTU HAU ETA HOR DAGO:** Auzokideak eta gu lehia bizian aritu gara Aste Nagusi honetan. Elefantea, Marrazkiloa, gora ta behera horrela egundoko giroa sortuz. Oso ondo.

- **KASKAGORRI:** Dudarik gabe konpartsa errferenzia bat da eta aurten kontzertu onak edukitzeaz gain beste urtetako giro ona berreskuratu da. Soilik euskararen presentzia haundiago bat eskatzea. Agur bat Kaskapresoei.

- **TAS TAS:** Irrati libreak bere estudioak eta bere diskoak konpartsa askori utzi zizkien, horretaz gain PA..YA eta ASKAPENA-n entzuten zen musika aukeraketa bikaina izan zen.

BANOA ETXERA LOTARA

- **TXOMIN BARULLO:** Konpartsa hau indarra galtzen dabil. Kristolako montaia, dekorazio bikaina baina gero eta Txomin Barullo kide gutxiago ikusten dira kaletik

- **BARRENKALE:** Basamortua. Bere garaian hau Bilboko 7 kaleetako jaiaren kalea izan zen, urte batzuetatik hona, ordea, Aste Nagusian bere bezero guztiek hanka egiten dute, nora ote?. Gure ustez tabernariak plaza biribilaren parajetatik bila joan beharko dute.

- **LEGALIZAZIÑUE :** Edo ta «Zezena eta Ilargia», «Argala», eta besteak. Noiz ulertuko dute gustoko duzun abesti bat gau berean millaka aldiz entzun ostean, gorrotatzera hel zaitezkeela?. Zer esanik ez gustoko ez dituzun abestiaz.

HOA MADRILERA

- **«PIES NEGROS»**ak: Urteroko kontua da jende astun honena. KONTUZ ez nahaztu kaleko malabaristekin, saltzaileekin edo kanpotik jaietaz gozatzera datozenekin, hauek jaiari giro berezi bat ematen bait diote. Gure lagun hauek egun osoan etzanda egoteaz gain dohanezko edozein gauza eskatzen baino ez dakite. Proposamen bat, datorren urtean bueltatu baina mesedez egin ezazue zerbait jaiaren alde.

- **« GRAN VIAKO ABREBADEROAK »:** Nork ikusi du ICV-ren konpartsakideren bat edo ta nondik sartzen dira Gogorregikoak Aste Nagusian?. Ez txupinazoan, ez estropadetan. ezta bazkarian ere. Algararen kasua kenduta, hor goian daudenak ez dira ez konpartsa, ez txosna, abrebaderoa ta kitto.

- **«ORAIN ERDERAZ EGINGO DIDAZU?»:** Jaiak 97 ezin da ukatu ihaztik hona hobetu egin dela. Pasa den urteko personajea kendu dute baina badakizue gure ETB maite elebiduna denez gero gu ere bai izan behar. Hortxe ibili zitzaizkigun jotake galdetzen bertso bazkarian eta estropadetan, baina erderaz egiteko uanean ezetza jaso zuten. Hori dela eta ANGULATXU, ur jokuen maskota euskarazko saioan hitz egiten zuen eta erderazkoan neskak esaten zigun Angulatxu mutua zela. Barkatu neska mutilak baina gu erderaz gutxi.





EL CORREO ESPAÑOL AL PUEBLO DA ASCO.

Ez larritu, artikulua ez bait da erderaz izango, baina ez dut hau baino izenburu egokiagorik. Jakina da gure herriko hainbat gaici buruz El Correok duen jarrera baina oraingo honetan Aste Nagusiaz hitz egingo dugu.

Gure festak ez dira botcretsuen gustokoak eta hori argi isladatzen da paperez egindako frankismoaren ondakin honetan.

Aste Nagusiaz hitz egiterakoan gorrotoz eta amorrua eribili behar omen da El Correo-ren estilo-liburuaren arabera. Urtero gure aurkako kanpaina berri bat burutzen dute. Honek Maiatza aldera du hasiera, hasteko Aste Nagusia Espainako iparraldeko hainbat jaiekin konparatzen dute. Konparaketa horren onarria eskainitako kontzertuak eta jaietako

aurrekontuak da. Xixoneko edo Valladolidiko festak gureak baino hobek ei dira zeren presupuesto txikiagoa izanda Madonna edo Mikel Jackson ekartzen dutelako?, hori ez dute ezta beraiek sinisten.

Horren ostean merkatarien eta zenbait hosteleroren kexkak plazaratzen dituzte. Txosnakook ez dugula zergarik ordaintzen. Zenbat dohaneko lan ordu ematen dute eta zenbat dohaneko ekitaldi burutzen dituzte Aste Nagusiaren alde hosteleroek?. Bat bera ere ez.

Aste Nagusiaren aurreko asteetan Arenaleko trafikoko mozketek Bilbon eragiten dituzten arazoak salatzen dituzte. Aznar Bilbora etorri zen azkenengo aldian hiri

osoa gelditu zuten eta El Correo amen, noski.

Gorrotorearen orgasmoa Aste Nagusiarekin batera dator. Aurten Iñaki Ezkerra «El aguafiestas» kazetariaren idatziak hemerrotekakoak izan dira. Mari Jaia «esperpento» bat dela eta bere abestia Kepa Junkera sasi-borrokaren lanik txarrena dela. Arenala desokupatu behar dela bertan txisa, txala, eta «fritanga»ren usaina baino ez dagoelakoan. Aste Nagusiarekin bukatu eta Semana Grande berriro ekarri behar dugula eta abar. Hori dela eta Bilboko Konpartsakook ikurrin marroia eman genion. Seguruenez «El aguafiestas» delakoa askotan txosnatan ibili da jaietan jotake, baina berak badaki bere nagusiek zer irakurri nahi duten eta

gustoa ematen die.

Egunkari honen ahalegin guztiak ez dira ustelak. Aurten Nacho Cano-ren kontzertua jasan dugu, ihaz «Ierrekakoe» eta Makarena (ba al dute beste abestirik) espanolito guztien gusto gustokoak. Euskaldunak berriz Latzen eta Betagarri baino ez. PP zergak kobratu nahian dabil eta aurtenia lortzen du.

Zorionez, eta aurtengo Aste Nagusian isladatu denez, herriak ez du lehengo jai frankistarik nahi. Ondo pasatu nahi du Kanean eta Mari jaiaren kanta entzunda saltoka eta dantzaka ipintzen da. Zenbait komunikabidek, Euskadi Irratia adibidez, aurten jaiak 78.koekin konparatu zituen. El Correcokoe haserre egoteko zergatia badute beraz poztu gaitezen.

Gure arteko

HAN @ HAN

HAN PITTU HAN Euskaldunen konpartsaaren aldizkaria

3.366. 1.997.eko Iraila

ZE NOLAKO FAUNA



Konpartsakideen argazki bitxiak soilik gure artean banatzen den orri honetan kokatu ditugu.

Batzuk nahiko konprometituak dira baina gauzez atera

zirenez ez dakigu behar den moduan ikusiko dituzuen. Dena den horra dihoaz.

Argazki hauekin batera Aste Nagusiko kronika bat prestatu dizuegu. Honetan ez da

izenik aipatzen baina ziur gaude batek baino gehiagok berataz hitz egiten dugula konturatuko dela.

Barne kontuetaz hitz egiten konpartsaaren barneko inkesta prestatzen gabiltza.

Datorren zenbakian edukiko duzue esku artean eta bertan hainbat gairi buruzko iritzia eskatuko dizuegu.

Beste gai batzuetaz hitz egiten, Aste Nagusian Askapeña eta Eguzkizaleekin irteera eta ekintza batzuk egitearen ideia sortu zen, (mozkorren baten erdian, ziur).

Esan ta izan, hasteko Urriak 18 ta 19an Tafallako Nafarroa Oinez-era joango gara. Azaroak 15 eta 16an, berriz, Lesakan ospatzen den Gazte Egunera. Beraz prestatu motxilak.

Honetaz gain mendiko talde bat egiteko asmoa dago, gure konpartsetako jendea rafting, espeleologia, mountain bike edo antzerako kiroletara urbiltzeko asmoz.

Besterik gabe agur bero bat.

Fauna artikulua:

ASTE NAGUSIKO PIZTIAK



Homo Perretxiko: Bere arbasoen usadio zaharraak jarraituz aste oso bat txapel baten azpian ematen dute.



Homo «Brock»: Aste Nagusian ezin ditu bere negozioak ahaztu. Datorren urtean txosnaren akzioak Boltsan sartu nahi ditu.

«Indioen Tribua»: Duela urte batzuk «aguadefuego» ez zuten ezagutzen baina orain zaletu amorratuak bihurtu dira.

Aste Nagusi osoa hura adoratzen eta beraiek asmatzen duten dantza arraroak egiten ematen dute.

KONTUZ beraiekin, jendea txosnetako barra gainera botatzea gustuko dute. Barbaro hutsak dira.





Oriondarra:

*Indioen arbasoa omen da,
gutxi ikusten dira. Hura
topatzen baduzu ez eman
edatekorik edo bestela egan
egiten hasiko da eta ihes
gingo dizu, alkohola
erabiltzen bait du erregai
moduan.*

Aste Nagusiko marrazkiloa:
*Ez du antenarik, ezta kontxarik
ere ez, baina bai bi patxaran
esku artean eta jaietaz
gozatzeko egundoko gogoak.
Berarekin topatu ezker eraman
ezazu jaietara bere «habitat»
naturala bait da.*



**NAFARROA OINEZ-era ETA LESAKAKO GAZTE EGUNERA
HAU PITTU HAU-rekin**

NAFARROA OINEZ

Irteera: Urriak 18.

Itzulera: Urriak 19.

LESAKAKO GAZTE EGUNA

Irteera: Azaroak 15.

Itzulera: Azaroak 16.

JAIETAN JAI

Zinez, parkamena eskatu nahi dizuegu erabili dugun izenburu ez-orijinal, prostituitu, politizatu eta abarrizatua erabiltzearen. Baina zuen arreta erakarriko zuelakoan geunden -batetik, bestetik pentsatzeko gogo gutxi genuen- eta, hala bada, bihotzez poztuko gara.

Bestalde, hainbeste hitz eta kontzeptu desitxuratua eta interes zitalen onurarako erabiliak diren Euskal Herri honetan, era horretako leloak modu propioan interpretatzeko eskubidea edonork duela uste dugu. Eta horixe egin dugu guk "Jaietan jai" ospetsuarekin. Ondoren datorrena lekuko.

Eta jadanik jaietz hitzik esan gabe parrafo bi idatzi ditugunez, goazen behingoz harira.

Haria zein den? Bada, aurtengo Aste Nagusian gertatu eta ez gertatutakoen inguruko komentario xumea eta, hori lortzeko gai bagara behintzat, ahalik eta umoretsuena. Gure konpartsa zoragarrian oinarrituz batik-bat, baina jaiak egiten eta alaitzen -eta kasuren batean, errugabeko animaliak espetxe estuetan giltzaperatzen- dituzten gainontzekoez ahaztu barik noski.

Aurpegia berrituta hasi zitzaigun Aste Nagusia. Plaza Barrian, jende mordoa, musika nonnahi eta motoreak oraindik puntu-puntu. Baten bati, ordea, gau horretan bertan hasi zitzaion olioia ihes egiten. Bateria berbetetzen eman zituen ondorengo egunak.

Ez gara lar luzatuko asteburua komentatzen, asteleheneko gertakizunez mintzatzeko irrikitan gaude eta. Bazkaria, antzerkia, sari banaketa, bertsoirikikalejira mundiala mozkor galanta barne... nondik hasi?

Hobe hasieratik. Gure hamargarren urteurrena ospatzeko, animalien askapenaren aldarrikapenaz bat egin nahi izan genuen. Alboko txosnakoek, ordea, ez, gure kontura, eta preso zeukaten izaki gixajoaren begirada tristeagatik batere errukitu gabe, bapo bazkaldu zuten arren. Tira, gustura jan genituen orain zehazki gogoratzen ez ditugun izendun plater bejetarianoak, baita aurretik mesfidantzaz beterik agertu zen eta haragijale amorratua den batek ere.

Oriondik etorri zitzaizkigun, ondoren, izaki arraro samar batzuk. Behintzat, konpartaren historia ondo ikasita ekarri zuten; umore txit ona ere bai, eta horrela pasa genuen denbora, sari banaketa arte. Horrek (banaketak) argi utzi zuen demokrazia parlamentarioa, gehiengo-gutxiengo sistema eta boto bidezko erabakiak ez direla beti justuenak. Hurrengo urterako, Aste Nagusia baino astebete lehenago asanblada bat egitea proposatu nahi dugu horren erabaki latza hartzeko. Kontuan har beza zuzendaritzak (zuzendaritza egotekotan, edo dagoenenan).

Bertsotrikikalejira izan omen zen gure urtebetetze eguneko gertakizunik aipagarriena, baina, kasualitatez, batzorde honetako inortxo ere ez zen joan, beste konpromezu batzuek behartuta. Hortaz, haren ondorioez baino ezin dezakegu hitz egin egia esango dugulaz ziur egon nahi badugu. Eta ondorioak bi hitzez definitu nahi genituzke (lasai, ez dugu *in prezionante* esango eta!): martxosoak eta etilikoak.

Asteak aurrera jarraitu zuen, bazkari, txosnako txanda, parranda, sargori, kontzertu (aipamen berezia Tapia eta Leturia Band-i, zilegi bazaigu geure eritzi subjeliboa agertzea) eta elefanteen askatasunaren aldeko era guztietako mobilizazio eta ekintzen artean. Luzeegi joko liguke xehetasunetan ibiltzeak eta arin-arin pasako gara horien ondotik, ostiralera iristeko.

Izerdiaren jaietan, Uraren Eguna. Ez bakarrik ura, edo ibaian dagoen zera hori (izen ofiziala ura badu, ez gara gu beste bat asmatzen hasiko, oraingoz). Goizetik suertatu zen mamitsua Aste Nagusiko egun nagusia. Lehenik, ikurriñari omenaldia, istilurik gabekoa aspaldiko partez. Arratsaldeko protagonismoa presoen aldeko mobilizazioekin konpartitu behar izan zuten estropada eta ur-jokoek. Konpartsakideok ahalegintxu bat egin genuen leku guztietan batera egon ahal izateko -bidenabar, eskerrik asko azken orduko fitxaje giputz biei; datorren urtean bederatzi egunetarako etorriko direla eta Hau Pittu Hau kide izan nahi dutela iragarri zuten-, baina egon ginen. Angula eta guzti. Horixe baietz!

Ezin aukera pasatzen utzi, lehen parrafo bietako hariari berriro heltzeko. Presoen Euskal Herriratzearen aldeko mobilizazio biak sekulako jai-giroan egin zirela azpimarratu behar da. Jaiak iraun zuen bitartean, une batez ere ez zitzaiolako utzi jaiak egiteari, ezta seriotasun osoa duten aldarrikapenak plazaratzeko garaian ere. Gauza biak batera egitea guztiz posible dela erakutsiz. *Jai eta borroka* baino, *jai borroka* edota *borroka jai*. Bederatzi egunez behintzat. Eta jaietan jai. Eta mobilizazio osteko mitinak, euskaraz, mesedez. Bilbon 35 000 euskaldun daude. Ezker Abertzalean gutxienez bat dagoela pentsatzea ez da astakeria, gure aburuz.

Bagoaz. Mari Jaiarekin batera, eta bera bezain bustita, Ibaizabal gora. Jaien amaieraz ez dugu ezer komentatu nahi izan, tristea beharko lukeelako halabeharrez. Gainera, zer axola du, datorren urtean berriro Aste Nagusia egongo bada? Guretzat, hamaikagarrena. Ordurarte.

